

Erabilera planak herri-administrazioetan

Euskara teknikarientzako lan-jardunaldiak.
Bilbon, 2009ko urtarrilaren 27 eta 28an

Administrazioko norbanakoen hizkuntza-prestakuntza eta trebakuntza

Juan Isasi
IVAPeko euskarako zuzendariordea

SARRERA

2006ko erdi aldera Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Eusko Jaurlaritzako sailetako euskararen erabilera-planei bultzada sendo bat eman nahi izan zien, eta egiteko horretan IVAPi laguntzeko eskatu zion. IVAPek, noski, laguntzeko konpromisoa hartu zuen hasieratik, gure misioan dagoelako eta erabilera planetan eragile aktiboak izan behar genuelako ustean.

Erabilera planen testuinguruan, 2006an eta 2007an Eusko Jaurlaritzako sailetan egoeraren eta beharren diagnosiak egiten hasi ziren eta horietan oinarrituta hasi ginen IVAPen zenbait zerbitzu eta produktu berri diseinatzen eta eskaintzen, prestakuntza-jarduerak eta hizkuntza-baliabideak, hain zuzen, diagnosietan antzemandako behar horiei erantzun egokia eman ahal izateko.


Nire hitzaldian erabilera-planen testuinguru honetan IVAPek eskaintzen dituen edo eskaini behar dituen prestakuntza-jarduera eta baliabideen panorama azalduko dizuet lehen zatian, eta Eusko Jaurlaritzan abian jarri berri dugun trebakuntza programari buruzko oinarritzko informazioa emango dizuet bigarreanean.

PRESTAKUNTZA ETA BALIABIDEEN ESKAINTZA

Hiru esparru bereizten ditugu mapa honetan: Ohiko hizkuntza-prestakuntza (*lauki berdean*), berariazko prestakuntza (*lauki urdin argian*) eta lanpostuko jarduera elebiduna (*lauki morean*).

Eta horien azpian/gainean solapatuta, (*lauki horian*), erabilera-planen testuingurua. Esparru hauetan kokatuko ditugu IVAPek eskaintzen dituen ikastaroak eta baliabideak.

PRESTAKUNTZA ETA BALIABIDEEN ESKAINTZA (2008-09an)



Hauetako batzuk denok ezagutzen dituzue; beste batzuk, berriz, pasa den urtean jarri dira abian, eta beste batzuk, azkenik, aurten eskaintzen hastekoak dira. Gerora, behar berriak sortu ahala, zerbitzu berriak txertatuko ditugu eskema honetan.

Ikastaro eta baliabideen eskaintza hau Eusko Jaurlaritzan egiten dugu, momentuz; baina IVAPen asmoa da, pixkanaka-pixkanaka, zerbitzu hauek gainontzeko administrazioetara ere zabaltzea, gure erakundearen posibilitateen neurrian, noski.

Ohiko hizkuntza-prestakuntza

Ohiko hizkuntza-prestakuntzaren laukian denok ezagutzen dituzuen euskara ikastaroak eskaintzen ditugu HABErekin batera. Lanorduetako zein lanorduz kanpoko ikastaro presentzial zein autoikaskuntza bidezkoak dira.

Badira, baina, beren lanpostuko HE aspaldi lortu eta, denboraren joanean, erabili ezaren poderioz, gaitasun maila galdu dutenak. Horregatik, ohiko eta berariazko prestakuntzen artean birziklatzeko ikastaroak diseinatu ditugu, 2. eta 3. HETarako. Joan den urritik abendura bitartean lehen ikastaro pilotua egin da, eta 2009ko eskaintza orokorrean sartuko dira ikastaro hauek.

Ikastaro hauen guztien bitartez lanpostuko hizkuntza-eskakizuna lortu (edo berreskuratu) daiteke; eta hori da, definizioz, lanpostuan euskaraz lan egiteko behar den gaitasun maila. Maila hori beharrezkoa bada ere, ez da beti nahikoa izaten. Langileak, eguneroko lan erreala euskaraz egiterakoan, zailtasun eta oztopoak aurkitzen ditu euskaraz idazten ohituta ez dagoen agiri administratiboak euskaraz sortu edota egokitzeko. Erabilera planen testuinguruan lanpostuaren azterketa komunikatiboaren ondorioz finkatutako komunikazio-lehentasunen arabera, langileak euskaraz egiten hasi beharko duen lan-jardunari lotutako komunikazioa landu behar du, lan-jardun mota horri dagozkion agiri-motak eta komunikazio-hizkera eta moldeak landuz. Eta hor sartzan gara, bete-betean, berariazko prestakuntzaren esparruan.

Berariazko prestakuntza

Administrazio-hizkerari buruzko on-line ikastaroak: ikastaroon helburu nagusia da langile publikoei kalitatezko idatzizko komunikazioa lortzen laguntzea. Ikastaro hauetan Administrazio-hizkeraren oinarriko kontzeptuak azaltzen dira eta idazki argi, egoki eta zuzenak sortzen ikasteko jarraibideak lantzen dira. Hiru modulutan banatuta daude, momentuz: I. moduluan: Ofizioa eta gutuna lantzen dira; II. moduluan, bilera-deia, ziurtagiria eta eskabide-orria. III. moduluan: Akta, txostena eta iragarkia.

Ikastaro hauen bertsio presentzial bat ere eskaintzen hasi gara dagoeneko, eta gaztelaniazko bertsio bat ere eskaintzen hasi behar dugu 2009an.

Diagnosietan sumatutako beste behar bati erantzuteko, **ahozko jarioetasunari buruzko ikastaroak** diseinatzen ari gara momentu honetan, eta uda baino lehen egingo dira lehen ikastaro pilotuak.

Ikusten duzuen bezala, prestakuntza-jarduera hauek lauki urdinaren eta morearen artean kokatzen dira, hau da, berariazko prestakuntzaren eta lanpostuko jardueraren artean, ez baitauka inolako zentzurik prestakuntza hau jasotzeak ez bada lanpostuan euskaraz, edo euskaraz ere, lan egin behar delako.

Langile bakoitzaren kasuan zein edo zeintzuk diren prestakuntza jarduerarik egokienak, langileen azterketa komunikatiboak esango digu.

Lanpostuko jardueraren elebiduna edo euskarazkoa

Azterketa komunikatiboak horrela eskatzen badu, (*hau da, prestakuntza teoriko-praktiko guztia jaso ondoren langileak oraindik ere arazorik balu eta laguntza gehiago beharko balu, orduan*), langileak **trebakuntza programan** sar daitezke. Nire gaurko hitzaldiaren izenburuari erreparatuta, norbanakoengandik gertuago dagoen prestakuntza, langile bakoitzari zuzendutako prestakuntzarik pertsonalizatuena, trebakuntza da, dudarik gabe. Eusko Jaurlaritzan abian jarri berri dugun trebakuntza-programari buruzko aipamen berezia egingo dizuet geroxeago; baina, orain, IVAPen eskaintzaren mapa hau osatu nahi nuke.

Trebakuntza lanpostuko jarduera elebidunaren esparruan kokatu behar da bete-betean, eta esparru horretan, trebakuntzaz aparte, euskaraz lan egiteko baliabide erabilgarriak jartzen ditugu euskaraz lan egin behar duten langileen eskura.

ELET

Euskaraz Lan Egiteko Tresnak izenaren akronimoa da ELET. Lanpostuan euskaraz lan egiteko erabilgarriak diren hainbat hizkuntza-baliabide batzen dituen aplikazio informatiko edo web atari integratu bat da, oso erabilerraza eta intuitiboa. Beraren bitartez, hiztegiak, itzulpenen datu-baseak, erabilera adibideak, gramatikari buruzko erreferentziak, dokumentu-ereduak eta baliabide gehiago ere kontsulta daitezke.

Duda-muda zerbitzua

Duda-muda kontsulta-zerbitzu bat da, zuentzat ezaguna seguru asko, administrazio- eta lege-arloko terminologiari eta hizkerari buruzko zalantzak argitzeko.

IVAPeko Estilo-liburua

IVAPeko Estilo-liburua erreferentziazko testu oso baligarria da kalitatezko komunikazioari begira eta testu zuzenak, jatorrak, egokiak eta argiak sortzeko helburua dutenentzat.

Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren zerbitzuak ere sartu behar ditugu mapa honetan.

Euskararen erabilera normalizatzeko planetan IZOk ere lagun dezake, inprimaki eta dokumentu-ereduak itzuliz, sailek behar dituzten glosario edo termino-zerrendak eginez, edota IDABA izeneko itzulpenen datu-basea erabiltzaileen esku jarriz,

Panorama osatzeko, IVAPeko Prestakuntza-zerbitzuak antolatuta, **askotariko gaiei buruz euskaraz eskaintzen diren prestakuntza-ikastaroak** aipatu behar ditugu, hauek ere lanpostuko euskarazko jarduerari begira ekintza baliagarriak baitira.

Prestakuntza-ekintzen eta baliabideen eskaintza hau zabala, zehatza eta egokia delakoan nago, eta ondo erantzungo die erabilera-planen testuinguruan sortutako beharrei. Baina, batez ere, erabilera-planetan sartuta dauden langileen beharrei erantzun behar die, eurak baitira, azken finean, zerbitzu eta baliabide hauek guztiak balia ditzaketenak, beren lanpostuetan euskaraz gehiago eta hobeto egiteko.

TREBAKUNTZA

Eusko Jaurlaritzako trebakuntza programari buruz hitz egiterakoan, lehenengo eta behin, esker ona agertu nahi diet Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunei, Estibaliz Alkortari eta Gotzon Egiari, eta bereziki Josean Amundaraini, trebakuntzaren inguruan 2007-2008an eman ziguten aholku, material eta laguntzagarrik. Oso laguntza baliagarria izan da gure programa abian jartzeko orduan.

Eusko Jaurlaritzako trebakuntza-programa pasa den urteko irailean abiatu zen, erabilera plana onartuta zeukaten bost sailetan sei trebatzaile lanean hasi zirela. Urtarrilean bost

trebatzaile gehiago hasi dira. Dagoeneko, beraz, 11 trebatzaile dauzkagu Eusko Jaurlaritzako sailetan.

IVAPek bere bezeroen beharrak eta igurikipenak antzemateko, hainbat administrazio-tako euskara-arduradunekin talde-dinamika antolatu zuen pasa den urtean. Dinamika horietan, besteak beste, trebatzaileen eta trebakuntzaren inguruko hutsune bat sumatu zen. Hutsune hori betetze aldera, programa horri buruzko oinarrizko ideia batzuk azalduko ditut ondorengo diapositibetan, lagungarriak eta orientagarriak izango direlakoan.

Trebakuntzaren inguruko ideia batzuk

- Trebatzailea **ez da** langileari euskara irakatsiko dion **irakasle partikularra**. Langileak euskara ikasi behar badu, ohiko prestakuntza jaso beharko du (lehenago diapositiban ikusi dugun bezala). Trebatzaileak, betiere, euskaraz egin beharrekoarekin lotutako prestakuntza zehatza eta bideratua emango dio langileari.
- Trebatzailea **ez da** langileari bere idatzizko ekoizpena euskaratuko dion **itzultzaile partikularra**.
- Trebatzaileak **ez du langilea behartzen lana euskaraz egin dezan**; hori erakundearen erantzukizuna da. Trebatzaileak laguntza ematen dio euskaraz lan egin behar duen langileari, erakundeak eskatzen diona bete dezan.
- Trebatzailearen lana **ez da talde dinamizatzailea** izatea, ez eta animadorea edo sustatzailea ere. Dena den, bere lana hobeto egiteko, beharrezkoak izango ditu harremanetarako erraztasuna eta dinamismoa.

Trebakuntzaren helburua

Zer da, bada, trebatzailea? Trebatzailea administrazio-ko langileari euskaraz lan egiteko (hasteko edota erabilera areagotu eta hobetzeko) laguntza, gidaritza eta orientabidea eskaintzen dion teknikaria da. Trebakuntza da, beraz, trebatzailearen bitartez langilearen eskura jartzen diren laguntza, orientabide eta baliabide multzoa, bere lana euskaraz egin ahal izan dezan, hau da, lanpostuko euskararen erabilera areagotzeko eta hobetzeko. Trebakuntza eta euskararen erabilera, beraz, lotuta doaz ezinbestean.

Oinarrizko kontzeptuak

Trebakuntzak oso ikuspegi praktikoa izango du. Trebakuntzaren bidez, langileak erabili ohi dituen administrazio-idazki errealak kalitate parametro batzuen arabera sortzeko edota egokitze gaitasuna hobetuko du, testu zuzenak, jatorrak, egokiak eta argiak sortu ahal izateko. Beharrezkoa denean, bere ahozko trebetasuna ere hobetuko du berriazko trebakuntza jasoaz.

Trebagai bakoitzarentzako helburu zehatz eta argiak zehaztu behar dira, aldez aurretik egindako lanpostuaren azterketa komunikatiboan oinarrituta, eta analisi horren ostean erabakitzen diren lehentasunen arabera. Horretarako, kontuan hartu behar da hizkuntza ofizialen erabilera-irizpideak lanpostu batean aplikatzeak ekar dezakeela euskararen erabilera-maila baxu batetik halako erabilera maila jakin batera pasatzea. Salto hori oso handia denean, helburuak mailakatu egin behar dira eta trebakuntzaldi bakoitzaren iraupen mugatura egokitu.

Esan bezala, trebakuntzaldiak **iraupen mugatua izan behar du**. Iraute aldetik, trebagai bakoitzaren behar eta baldintza espezifikotara egokitu behar da trebakuntza. Hasierako erabilera-mailatik erabilera-maila idealera doan tartea oso ezberdina izan daiteke lanpostu batetik bestera. Beraz, trebakuntzak ez du iraupen finkorik. Hala ere, trebakuntzaren hasiera eta amaiera nolabait finkatuko dituzten irizpide orokorrak jarri beharra dago. Bestela, trebakuntza hasi bai, baina bukatu sekula bukatzen ez den kontu horietakoa izan daiteke.

Gure hasierako irizpidea honako hau izan da: hiru hilabeteko denboraldian trebagai bakoitzari helburu zehatz eta espezifikoak jarriko zaizkio. Denbora horren buruan, banakako ebaluaketa egingo da jarritako helburu horiek bete ote diren; eta horren arabera, hala badagokio, helburu berriak izendatuko dira hurrengo hiru hilabeteetarako.

Trebakuntza, erabilera-planetan sartutako langileei zuzenduta dago baina **borondatezkoa izango da**. Edozein kasutan ere, bere sailaren onespena izan beharko dute trebakuntza jaso ahal izateko.

Azkenik, trebagaiak, trebakuntzarako finkatutako helburuen arabera, **euskaraz lan egiteko konpromisoa hartzen du**. Trebakuntza programan sartzea erabakitzen duen langileak argi izan behar du erabaki horren bitartez administrazioan euskararen erabilpena zabaldu eta sendotuko duen eragileetako bat izango dela.

Trebatzaileen alde aurreko prestakuntza

Trebatzaileek alde aurreko prestakuntza bat jaso dute Eusko Jaurlaritzan, lau modulutan banatuta. Programaren nondik norakoak azaltzeko modulu bat, IVAPek emana; Erabilera-planen berri emateko beste saio bat, HPSk emana.

Prestakuntza teknikoa jaso dute 3. saioan; trebakuntza lanaren lehengaiarekin berarekin zerikusia duen prestakuntza, administrazio-hizkeraren inguruan. Euskalduntze zerbitzuko administrazio-hizkera arloaren eskutik jasotzen dute prestakuntza hori. Besteak beste, idazketa prozesua, gramatika, estiloa, idazkien diseinua eta zuzenketa, eta abar lantzen dira. Sei eguneko ikastaroa da, IVAPeko estilo liburuan oinarrituta, gehienbat.

Azkenik, 4. saioan, sail bakoitzeko arduradunek eta euskara teknikariek eskainia, honako hauek azaltzeko:

- Sailaren egitura eta antolamendu orokorrak.
- Erabilera Planean inplikaturako atalen funtzio eta egiteko nagusiak.
- Erabilera plana zertan den. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.
- Trebakuntza programaren testuinguruan, hiruhileko bakoitzerako aurreikusitako.
- Planifikazio orokorra: inplikaturako atalak eta trebakuntza jasoko duten langileak.

Trebakuntzaren planifikazioa

Trebakuntzaldia hasi aurretik, lanpostuaren azterketa komunikatiboa egin behar da eta, horren arabera, lanposturako komunikazio-lehentasunak finkatu.

Hiru hilabeteko aldirako helburu zehatzak finkatu eta Planifikazio-fitxan jasoko dira:

- Euskara maila
- Helburu orokorrak
- Helburu zehatzak
- Landuko diren dokumentuak
- Landuko diren ahozko jarduerak (hala badagokio)
- Ordu kopurua astean (printzipioz 2)
- Hasiera eta bukaera datak
- Ebaluazioaren maiztasuna

Programaren antolakuntza orokorra.

Trebatzaile bakoitzak, printzipioz, zortzi langileren ardura hartuko du aldi berean trebakuntzaldi bakoitzean. Trebakuntzaren ziklo edo txanda bakoitzak 12 asteko iraupena dauka, gutxi gorabehera. Horrela, urtean hiru trebakuntzaldi egiten dira: urri-abendua, urtarril-martxoa eta apiril-ekaina hiruhilekoekin batera.

- Astean, langile bakoitzarekin bi orduko saio presentziala (edo ordubeteko bi saio)
- Gainontzeko denbora: prestaketa-lana, koordinazioa, erabilitako materialak bildu, etab.

Trebakuntzaldi bakoitza bukatu ondoren, hurrengo trebakuntzaldia hasi arteko trebakuntza-saiorik gabeko bospasei eguneko tartean, honako hauek egingo dira:

- Bukatutako txandako langileen ebaluaketa egin: aprobetxamenduari buruzko txostena eta langileen gogobetetze mailari buruzko inkesta egin, besteak beste.
- Trebagaiekin egindako trebakuntza-lanetatik eredugarriak izan daitezkeen materialak aukeratu eta bildu, egokitu eta formatu aldetik bateratu.
- Trebatzaileen arteko koordinazio lanak egin.
- IVAPekiko koordinazio-bilera egin.
- Hurrengo trebakuntzaldirako planifikazio-fasea hasi.

Euskara teknikarien egitekoak

Sail bakoitzeko euskara teknikariek egiteko garrantzitsuak izango dituzte programa honetan. Nondik datorkie eta zertan oinarritzen da euskara teknikariei programa honetan izan behar duten ardura? :

- Sailaren erabilera plana bertatik bertara ezagutzen dute eta planaren fase guztietan eragile aktiboak dira
- Erabilera planean inplikaturik dauden atalak, langileak eta langile hauen hizkuntza-maila eta egoera ezagutzen dituzte.

Horretan oinarrituta, honako hauek izango dira euskara-teknikarien egitekoak trebakuntza programaren antolakuntzan:

- Bere sailak trebakuntza-programan parte hartzeari begira, ezarritako erabilera planaren helburuak eta atalen egoera kontuan hartuta, trebakuntza hartzeko diren trebagaia posibleen lehen aukeraketa egitea.
- Trebakuntzarako proposamena egitea langile interesatuari, langile horren arduradun zuzenei eta saileko zerbitzu zuzendariari.
- Trebatzaileei eman beharreko alde aurreko prestakuntzaren 4. moduluan parte hartzea, saileko erabilera-planaren berri emateko eta trebakuntzarako aurreikusitako planifikazio orokorra adierazteko (inplikaturik dauden atalak, parte hartuko duten langileak...).
- Trebagaiei lanpostuen azterketa komunikatiboak egitea eta, horretan oinarrituta, lanposturako lehentasun komunikatiboak finkatzea eta trebakuntzaldirako helburu zehatzak finkatzea, trebagaiekin eta trebatzaileekin batera, hala badagokio.
- Honetaz aparte, trebagaiei segimenduan eta ebaluaketan ere parte har dezakete, noski, batez ere langileak beste trebakuntzaldi batean jarraitu behar baldin bada.

Trebatzailearen egitekoak

Trebatzailea trebakuntzaren **arduraduna da**, eta bere erantzukizunpean dituen trebagaiei hizkuntzazko laguntza, gidaritza eta orientabidea eskaini behar die. Oro har, trebatzailearen eginkizunak honela labur daitezke:

- Euskara teknikariarekin eta trebagaiekin batera, trebakuntzaldi bakoitzerako helburuak formulatzen laguntzea, hala badagokio
- Laneko testuetan oinarrituta, lanak zuzendu eta zuzenketoi buruzko azalpenak eman

- Trebagaiaren akats sistematikoak zuzentzeko prozedura finkatu eta ariketa nahiz baliabide bereziak prestatu
- Trebagaiak behar duen edonolako materiala prestatu, eskuratu edo lortzen lagundu: hiztegia, gramatikak, irakurgaiak, entzungaiak, etab.
- Oro har, trebagaiaren zalantzak argitu
- Etengabeko jarraipena eta ebaluaketa egiteko informazioa nahiz materialak bildu eta aztertu.

Trebagaiaren betebeharrak

Trebakuntza programan sartzea **erabakitzen duen langileak** argi izan behar du jasotako trebakuntzak ezertarako balioko badu, finkatutako helburuen arabera behintzat euskaraz lan egin beharko duela.

Trebagaiarengandik hiru gauza zehatz hauek espero dira:

- Trebakuntzaldiaren hasieran jarritako helburuak betetzen ahalegintzea.
- Trebakuntzaren urrats guztietan bere laguntza ematea, bereziki trebatze saioen antolamendua errespetatuz.
- Trebagaiaren karpeta bete eta eguneraturik eramatea.

Trebagaiaren iritzi eta ikusmoldea oso baliagarria izango da trebakuntzaldia prestatu nahiz ebaluaketa egin behar denean.

Saileko arduradunen egitekoak

Trebagaiak administrazioan euskararen erabilera zabaldu eta sendotzeko eragile nagusiak dira, trebatzaileen laguntzaz. Baina argi dago TREBAKUNTZA programak ez duela arrakastarik izango **sailtako arduradunen erantzukizuna** eta atxikimendua lortzen ez badu. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, "arduradun" hitzarekin gauza zehatza adierazi nahi dugu: sailburu, sailburuorde, zuzendari eta zerbitzuburuak.

Zer espero da, beraz, arduradun hauengandik? Hauxe da, oro har, sailtako arduradunei eskatzen zaiena:

- Trebakuntza-saioak baldintza egokietan eta planifikatu bezala egiteko behar diren baliabideak jartzea eta bestelako neurriak hartzea.
- Trebakuntza programak sailean topatuko dituen arazoak konpontzeko prest egotea.
- Langilea euskaraz lan egitera bultzatzea, jarritako helburuen arabera
- Trebakuntza programan sartuta dauden langileen ahalegina eta euskarazko jarduna aintzat hartzea.

IVAPeko koordinazioa

Trebatzaileek behar duten zenbait azpiegitura hornitzeaz aparte, honako hauek egingo ditu IVAPek:

- Trebakuntza-programaren oinarrizko irizpideak eta funtzionamendu arauak jarri.
- Trebatzaileen hasierako prestakuntza koordinatu eta IVAPi dagozkion moduluak eman.
- Trebatzaileen koordinazio orokorra egin.
- Saitetako hizkuntza-normalkuntza teknikariei argibideak eta laguntza eman beren antolakuntza lana errazteko.

Zuetako inork bere Administrazioan trebakuntza-programa bat jartzeko asmorik balu, eta lagungarria suerta dakiokeela uste badu, guregana jo al du dokumentazio eta informazio bila. Besteak beste, kontrataziorako baldintza teknikoaren pleguak, zabalkunderako agiriak, jakinarazpen-gutunak, eta programarekin lotutako agiri gehiago ere eskuratu ahal izango dituzue.

AZKEN HITZAK

Pasa den 2008an IVAPek bere 25. urteurrena ospatzeko hiru jardunaldi antolatu zituen berrikuntza ardatz hartuta. Horietako bat euskarari buruzko monografikoa izan zen eta Andu Lertxundi idazlea eta Patxi Baztarrিকা Hizkuntza Politikarako Sailburuordea izan genituen hizlari. Patxi Baztarrिकak eskaini zigun hitzaldi bikainean honako lelo egoki hau erabili zuen:

Erabilera helburu, adostasuna zubi, atxikimendua elikagai.

Mezu oso aproposa irudikatzeko gaur aztertzen ari garen euskararen normalizazioak aurrera egiteko oinarriak. Nire hitzaldiaren eduki eta helburuekin hobeto uztartzeko, Patxiren baimenarekin, lelo hori egokitu egingo dut, honako mezu hau sortzeko:

Erabilera helburu, adostasuna eta atxikimendua zubi, prestakuntza eta baliabideak elikagai.

Eta IVAPen, dagokigun neurrian, ahalegin guztiak egingo ditugu ondorengo urteotan erabilera-planek eragindako prestakuntza eta baliabide gose horiek asetzeko.

Bilbon, 2009ko urtarrilaren 27an.

Juan Isasi
IVAPeko euskarako zuzendariordea